



1. "Etxean kontu kantari"

Etxean jolas eta kantuan aritzeko aukerak eskaintzen ditugun atal honetan, gaurkoan kantu polit bat aurkituko duzue, autoan zoaztela etengabe kantari joateko, kanon bat eginez, familian, ezetz nahastu gabe egin: "Oihana bazterrean". Jolas proposamen gisa, hitz joko bat: "Marigorri". Azkenik ipuin bat: "Galtzagorriak". Badakizue, gurasoek entzun behin baino gehiagotan eta hurrei kontatu zuen hitzez... Ipuinean gertatzen dena hurrek ulertzen dutenetik aurrera, grabazioa entzun autoan, etxean, nahi duzuenean, nahi duzuen lekuan... Badakizue non dauden: "Etxean kontu-kantari" atalean!

2. "Ipuinez ipuin"

Agintariak zenbaitetan handinahiak bilakatzen dira. Bost badituzte hamar nahi, horiek nola lortzen dituzten bat ere kontutan hartu gabe. Egungo ipuin bat sortu dugu gai zahar bat erabilita, gizakia beti gizaki: diru gehiago, botere gehiago, aginte gehiago... hari luze baten muturrean dago jauntxoa, baina beste muturrean dagoen norbaitek pairatuko ditu haren gehiegikeriak. Gaurkoan Azerbaijan zaharrari begiratu diogu, eta hango ipuinetan agertzen den giroa gordez, "Erregea eta merkataria" sortu dugu.

Abrite portas, klis-klas!

3. "Gela barnean"

Ikasturte hasierako lan garrantzitsu bati heldu diogu aurtengo buletinei hasiera emateko. Aspaldiko hiru urte hauetan, kalitatezko bibliografia eskaintzeko asmoz, bibliografia sailkatua eskaini izan dugu, haietan literatur liburuak bestelako liburuekin nahastu izan ditugu, baina oraingo honetan, saiatu gara haur txikien bibliotekan egongo diren "Nozio liburuak" besteengatik bereizten. Gizarte gaiak, naturarekin zerikusia duten liburuak, estetikarekin biltzen dira sailkapen honetan. Haur askok aukeratu egiten dituzte era honetako liburuak literatur liburuen gainetik eta irakurketa sustatzeko paregabeak dira. Hala ere, sail honi hasiera baino ez diogu eman, asko falta dugu. "Literatur liburuak" ere kontutan hartu ditugu, eta aurrean aukeratu ditugun literatur liburuak eta aurretik erabili ditugun irizpideak berriz ere erabili ditugu zuei eskaintzeko.

4. "Egitasmoa martxan"

Ikasturte hasierako lanak bideratu ondoren, berriz ere heldu diogu buletinari, zuengana hainbat proposamen luzatzeko asmoz: egitasmoaren informazioen bat, jolasean eta kantuan aritzeko proposamenak, liburu gomendioak, ipuinak... Indartsu hasi gara aurrean: egitasmoa, bere osotasunean, Hernanin eta Eskoriatzan bideratuko dugu, 2 herrietako haur eskolek nahiz eskolek parte hartzeko aukera dutelarik. Ikastaroan hasi dira irakasleak eta laster, gainontzeko herri guztietan bezalaxe, ailegatuko dira haien geletara motxila txikiak, liburu ederrez beteak. Mailek ere etxez etxeko bidaiari emango diote hasiera, familian irakurketa partekatzeko. Irakurketa klubak ere burutzen ari dira herri askotan; hala nola Laudion, Iurretan, Ermuan, Donostian hiru biblioteketan, Erreterian, Aramaion eta Andoainen. Egitasmoaren hirugarren adarrak ere aurrera egin du, anbulatorioetan garatzen den egitasmoa, hain zuzen ere. Iurretan hasi da esperientzia berri gisa garatzen, bertako pediatria taldekoak animatu dira egitasmoan parte hartzen.